

XIII. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

XIII FERIA DE ARTESANIA DEL PAIS VASCO
XIII FOIRE D'ARTISANAT DU PAYS BASQUE

ERRENTERIA
1991 MAIATZAK
1 · 2 · 3 · 4 · 5



ANTOLATZAILEA:
EREINTZA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK:
EUSKO JAURLARITZA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
ERRENTERIAKO UDALA
GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA



XIII. EUSKAL HERRIKO
ESKULANGINTZA AZOKA

XIII FERIA DE ARTESANIA
DEL PAIS VASCO

EREINTZA ELKARTEA - ERRENTERIA

KATALOGOA

CATALOGO

AÑO 1991 URTEA

EGITARAUA

PARTE HARTURIKO
ARTISAUAK

ARTESANOS
PARTICIPANTES

ZURA - MADERA

**ARGIZAIOLAK, KUTXAK,
HALTZARIAK...**
(Talla tradicional y mueblería)

- Carmelo Boneta (Lizarra)
- Antton Mendizabal (Oiartzun)
- Fermín Anda (Bakaikoa)
- * Ebanistería Patxi (Irún)
- * Braulio Buenetxea (Zarautz)

ERADOSGINTZA (Taracea)

- * Ignacio Zubillaga (Eibar)

UZTARRIAK (Yugos)

- Eulogio Iraola (Asteasu)

**EZPEL ZALIGINTZA
(Cucharería de boj)**

- Marcos Saragüeta (Mezkiritz)

PROGRAMA

KAIKUAK, OPORRAK...
(Útiles tradicionales de madera)
— Santiago Hualde (Zubieta)

MAKILAK (Bastones)
* Alejandro González (Anoeta)
— Iñaki Alberdi (Irún)

UPELGINTZA (Tonelería)
— José Fernández Coll

OTARGINTZA - CESTERIA

**GAZTAIN ZUMITZEZKO
OTARGINTZA**
(Cestería de fleje de castaño)
* José Ramón Salmantón (Zalla)
— Juan Unzueta (Durango)

**ZUME OTARGINTZA
(Cestería de mimbre y bambú)**
* Taller Haizea (Trapagaran)
— Izaskun Basoa (Basauri)

BURNI ETA METALKIAK HIERRO Y METALES

JOAREAK (Cencerros)
* Epifanio Lazkano (Iturgoien)

**PIZTIENTZAT KAIOLAK
(Cepos y jaulas para alimañas)**
* Juan Gallego (Lizarra)

**KOBREZKO TRESNAK
(Cacharros de cobre)**
* Faustino Puente (Balmaseda)

**BURDINLANTZA ARTISTIKOA
(Forja artística)**
— Francisco Martín (Elgorriaga)

**METAL GRABAKETA
(Grabado de metales)**
* Jesús López Abaigar (Eibar)

**DAMASKINTZA
(Damasquinado)**
* Iñaki Bilbao (Bilbo)

BUZTINA, HARRIA ETA BEIRA BARRO, PIEDRA Y VIDRIO

BUZTINGINTZA (Alfarería)
* Antonio Naharro (Navarrete)
* Ontzi Buztingintza (Errenteria)

KERAMIKA (Cerámica)
* Sara Seoane eta Oscar Altuna
(Getxo)

**BEIRA PUZTUA
(Talla del Vidrio)**
— Artesanías "El Palacio" (Iruñea)

**BEIRA TAILAKETA
(Vidrio soplado)**
— Soplados Arias (Bilbo)

BEIRATEAK (Vidrieras)
* Serge Taillant (Bardoze-Lapurdi)

**PORTZELANAK HOTZIK
(Porcelanas en frío)**
— Purificación Noguera (Billaba)

HARGINTZA (Cantería)

— Bernat Vidal (Abadino)

OIHALKIAK - TEXTILES**GORUETA (Hilado con rueca)**

— Castora Agesta (Etxalar)

EHUNGINTZA (Tejido)

* Taller Lauaxeta (Mungia)

EUSKAL BRODAKETA (Bordado vasco)

— Agurtzane Ojer (Abadino)

ERREPOSTEROAK (Reposteros)

— M.^a Eúgenia Aristegui (Iruñea)

BOLILLOAK (Encaje de bolillos)

— Quiteria Millán eta Asunción Arévalo (Errenteria)

TAPIZAK (Tapices)

* Ana Pérez de la Gomera (Iruñea)

SETA MARGOTUA (Seda pintada)

— Michéle Gracy eta Joele Rodeau (Sara)

SAREGINTZA (Redería varia)

— Dionisio Usarraga (Hemani)

LARRUA - CUERO**GUARNIZIOGINTZA (Guarnicionería)**

— Melchor Vicente Labat (Lizarra)

OINETAKOAK (Calzado)

— Pedro Redín (Iruñea)

ZAHATOGINTZA (Botería)

— Juan José Etxarri (Iruñea)

LARRUZKO PILOTAK (Pelotas de cuero)

— Prudencio Jauregi (Lazkao)

POLTSOAK, GERRIKOAK, ZORROAK... (Artículos diversos en cuero)

* Iñaki Hernández (Bilbo)

HAINBAT ESKULANGINTZA ARTESANIAS VARIAS**ADARRAK, KUTXARROAK... (Útiles tradicionales de cuerno)**

— Juan Antonio Alaña (Menagarai)

ITSASUNTZIEN MODELUGINTZA (Modelismo naval)

— Juan Palmer, Joaquín Fernández eta Vicente Barral (Pasai San Pedro)

MARINEL ESKULANGINTZA (Nudos marinos)

— Eduardo Lorenzo (Errenteria)

ENKUADERNAKETA (Encuadernación)

— Elena Aberasturi (Donostia)

TXONTXONGILOAK (Marionetas)

— "Menina" Taldea (Hondarribia)

TXISTUAK ETA ALBOKAK (Txistus y albokas)

— Joseba Gastiain (Antzuola)

ELIKADURA ALIMENTACION**ERLEGINTZA (Apicultura)**

— Mikel Robles eta M.^a Begoña Maniega (Barakaldo)

TALOAK (Talos)

* Josepa Albizu (Segura)

KONFITERIGINTZA (Confitería)

ARTISAU ETA LANGINTZEN
BERRI-LABURRAK

RESEÑAS DE ARTESANOS
Y ESPECIALIDADES

*OHARRA: *Ikurra ez daramaten artisauen
berri-laburrak ez dira Katalogo honetan agertzen;
izan ere aurreko Azoken Katalogoetan
sarturik bait daude.*

*Nota: Los artesanos que no llevan asterisco
no aparecen reseñados en el presente Catálogo,
al estar incluidos ya en
los Catálogos de Ferias anteriores.*

Artisaua: / Artesano:
PATXI JIMENEZ BILBAO
(Ebanistería Patxi)

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1938, Ekainak 21 - La Coruña

Helbidea: / Domicilio:
Darío de Regoyos, 2-4° A
IRUN (Gipuzkoa)

Telf.: 62 75 65 (tailerra)



Aurkezpen gisa:

Bere aitak (bera bezala zurgina) erakutsitakoarekin eta ilusio handi batekin hasi zen, 1952an, berak dioen bezala "amaierarik ez duten ikasketa" hauek egiten. Hondarribian ikasi zuen zura lantzen Mikel Ganauraren eskutik. Lanketa honetan ez du makinaria berririk erabiltzen, baina oholak ebakitzeko zerra berririk erosi ditu.

Fabrika handiek sortu duten konpetenziak eskulangitzako tailer askoren porrota sortarazi du. Azoka eta hirietan lortzen duten salmentari esker mantendu daitezke oraindik zenbait tailer.

Lanak enkarguz egiten dira eta esan daiteke Estatu osotik jasotzen dituztela aginduak. Gaur egunean lantzen duen zur lanketa aintzinakoa baino askoz ere arinagoa da, salmentaren eskaritara egokitu asmoz. Lan horretan gehien erabiltzen diren zurak gerezia, intxaurra, haritzta eta beste zenbait zur noble izaten dira.

Otros datos:

En 1952 con los conocimientos de su padre (también era ebanista) y una gran ilusión, comienza a trabajar en el oficio que como dice él "nunca se acaba de aprender". Aprendió a tallar en Hondarribia con Miguel Ganaura. Para los productos de talla no ha aplicado maquinaria nueva, pero para el corte de las tablas han comprado sierras nuevas.

La competencia de las fábricas grandes está produciendo el cierre de estos talleres artesanales y gracias a las ventas en las ferias y en las ciudades, todavía se mantienen algunos.

Los productos los hacen por encargo y reciben pedidos de todo el Estado. El tipo de talla que ejecuta en la actualidad es más ligero que los de antaño, a fin de hacerlo más asequible para la venta.

Las maderas utilizadas en el trabajo son el cerezo, nogal, roble u otras maderas nobles.

HALTZARIGINTZA

Euskal Herrian egindako haltzarien artean ziur aski kutxa izango da zaharrena. Aintzinako garaietan kutxa hauek oso luzeak izan ohi ziren, sarraila koadratu eta kanporatuekin, eta oin zabalak. Batzuk erabat leunak izaten ziren, baina sarri askotan buru borobil eta iltze leun eta lodiz apaintzen zituzten. XV mendea aurrera doala, kutxaren tamaina txikitu egin zen, aurrekaldea "dafaila" motatako tailaketaz eta beste motiboren batez apaintzen zelarik. XVI mendearen hondarretan edo XVIIaren hastapenetan, kutxak Euskal Herriko ezaugarri propioak hartu zituen. Kutxa mota berri horrek apaindura geometrikodun hanka luzeak erantsi zizkion; dena den esan behar da apaindura batzuk, "zirimola eguzkia" kasu, erromatarrengandik jasoak direla, horiek griegotarrengandik eta azken hauek Asiako herrialdeetatik. Sarraila azpian, tailaketa simetrikoko edo geometrikodun gurutze griegoa edota latinoak jartzen zuten. Kutxa eredu horrek ia XVIII mendearen amaierara arte iraun zuen. Mende horretan barneraturik jada, hau da, XVIIIan, kutxak XVII mendekoen antzekoak izaten ziren tamainaz, baina oinik gabekoak eta aurrekalde leunekoak, edota XV eta XVI mendeetako Alto Adagio italiarreko estiloan apaindurikoak; era batekoak izan zein bestekoak izan, bietan, zuraren lanketa zati baxuetako hegal garaienetan egiten zen bakarrik.

MUEBLERIA

Dentro de los muebles quizá el más antiguo fabricado en Euskalherria sea la kutxa. En épocas remotas solían ser sumamente largas, con cerrajas cuadradas y abultadas, y patas anchas. Algunas eran totalmente lisas, pero más frecuentemente decoradas con gruesos clavos de cabeza redonda y plana. Avanzado el siglo XV las arcas son de pequeño tamaño, con fachada decorada según la talla "servilleta" u otro motivo gótico. A finales del siglo XVI o principios del XVII, la kutxa comienza a adquirir carácter local. La modalidad tiene patas altas con motivos geométricos nuestros, aunque algunos "sol de torbellino" lo tomamos de los romanos, estos de los griegos y estos a su vez de los pueblos de Asia Menor. Colocaban debajo de la cerradura una cruz griega o latina de talla simétrica y geométrica. El modelo persiste hasta bien avanzado el siglo XVIII. Avanzado el XVIII se construyeron del tamaño de las del XVII pero sin patas, bien con fachada lisa o decorada al estilo italiano del Alto Adagio del XV y XVI, reservando en ambas la talla para la alta cenefa de la parte baja. Más tarde se introducen las decoraciones que perviven hoy en día.

Artisaua: / Artesano:
BRAULIO BUENETXEA MANTEROLA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
19414, Urriak 25 - Zarautz (Gipuzkoa)

Helbidea: / Domicilio:
San Francisco Kalea, 37-2º
ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Telf.: 13 22 72



Aurkezpen gisa:

1976an, jada maisu industrialia zelarik, artisau bat ikusi zuen Zarautzen zura lantzen, berehala maitemindu zelarik lan mota harekin. Berak lan egiten zuen fabrikako lanak utzi gabe ekin zion lanbide berri honi. Eskulangintzari dagokion prozesu osoa menperatzen du, hasi zerategitik eta azken bernizaketaraino. Gaur egunean lanbide hau bere ogibide bihurtu da, egunero zortzi orduko lanaldia betetzen duelarik.

Bere lanak erakustoki eta galerietan saltzen ditu, eta batipat Nafarroako Mendialdean.

Otros datos:

En 1976 y siendo ya maestro industrial vió a un artesano en Zarautz trabajar sobre el tema y se enamoró de éste tipo de labores. Comienza a trabajar en este oficio compaginándolo con el trabajo de la fábrica. En las labores artesanas controla todo el proceso de elaboración, desde la serrería hasta el barnizado final. En la actualidad vive de este trabajo, imponiéndose una jornada laboral de ocho horas diarias.

Vende sus productos en exposiciones y galerías, y sobre todo en la Montaña Navarra.

ZURAREN TAILAKETA ERLIEBE GARAIAN

Zuraren langintzan aipagarriak dira neurri zehatzetako, baina era berean apaindura landu ugarietako, haltzariak: landare apainduretan askatasuna, marrazki geometrikoetan zehaztasuna, eskematismoa eta animalia edo giza irudiak ondo zehaztu gabeak.

Artisau honek erliebe garaiko lanketarako erabiltzen duen prozesua, bere lanerako aukeratu duen apaingia (erreal edo asmatua) paper batean marrazteaz hasten du. Gero, koadroaren neurriak zehaztu ondoren, paperean egin duena zurerean marrazten du. Behin eta koadroaren fondoko irudia ondo aztertuz, koadro azpiaren lanketari ekingo dio, irudien erliebea atera eta, azkenik, irudien barruak lantzeari ekingo dio. Eskulangintza honen zailtasuna ez datza bakarrik tailaketan bertan, lanaren planteamendu osoan baizik.

TALLA DE MADERA EN ALTO RELIEVE

En la artesanía de la madera destaca el mobiliario de gran sobriedad en su línea pero en ocasiones abundante en adornos tallados: libertad en los motivos vegetales, precisión en los dibujos geométricos, esquematismo y poca elaboración en las figuras tanto animales como humanas.

El proceso utilizado por este artesano en sus trabajos de talla en alto relieve, se inicia con el dibujo del motivo (real o inventado) elegido para la obra sobre un papel. Del papel, y una vez definidas las dimensiones del cuadro, se pasa el dibujo a la madera. Una vez estudiado el fondo y los diferentes relieves que convengan a la composición, se realiza el fondo, se saca el relieve de las figuras y seguidamente se labra el interior de éstas. La dificultad de este oficio estriba no sólo en la propia talla, sino sobre todo en el correcto planteamiento de la obra.

Artisaua: / Artesano:
IGNACIO ZUBILLAGA LARRAÑAGA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1926, Abuztuak 22 - Azpeitia (Gipuzkoa)

Helbidea: / Domicilio:
Matxaria Kalea, 1
EIBAR (Gipuzkoa)

Tel.: 11 65 79



Aurkezpen gisa:

1940. urtean hasi zen lanean Azpeitiko Aguirre y C^oa zurgindegian. Era guztietako haltzariak egiten ditu. Gero, haltzari industriak izan zuen krisialdiarekin bat, Eibarko arma fabrika batera joan zen lanera.

Armagintzari etorri zitzaion krisialdiak eraginda, berriro jo zuen zurgintzara, baina oraingoan eradonketa aukeratu du. Halere, brontzea argizari galdura ere landuko du.

Gaur egunean, eradongintzan zein armagintzan aritzen da. Azken langintza dela ta, Madril eta Estatuko beste zenbait azokatan ere egon da.

Otros datos:

Comienza a trabajar en 1940 en el taller de ebanistería Aguirre y Cía. de Azpeitia. Fabrica todo tipo de muebles. Más tarde, con la crisis en la industria del mueble, se va a trabajar a Eibar en la fábrica de armas.

Con la crisis de la industria armara vuelve a la artesanía de la madera en la faceta de la taracea. También trata algo el bronce a la cera perdida.

En la actualidad trabaja tanto en la taracea como en la armería. En esta faceta ha estado en Madrid y en otras ferias del Estado.

ERADOSGINTZA

Zur zati txikiz, maskor oskolez, metalez edo beste material batzuz egiten den txertaketari deitzen zaio eradosgintza. Langintza honetan beste gauza guztien gainetik kontuan izan behar den gauza da, batipat, erreprodukzioan erabiliko den metodoa. Marraskia, zur oso mehe edo xafla batetik moztuko diren zatiz osatzen delarik eta apaindu nahi den zuraren gainean jartzen direlarik, apaltasunez eta neurri zehatzez eratuko da.

Eradosgintza lan hori ez da, hala ere, irudi natural bat besterik gabe hartzea eta era konbentzionalean birproduzitzea, naturaren iradokizunak jaso eta harmonikoki garatzea baizik. Azken emaitza hain urruti egon daiteke naturak emandako irudietatik non artistak berak ezagutu dezakeela bakarrik.

Eradosgintzan, koloreen hain efektu zoragarriak lortzen badira, edozein motatako materiala erabili ahal izaten delako da, bai zura bere kolore aukera amaigabeaz bai nakarra, marfila edota beste edozein metal. Haritz zuria peltrearekin eradoskiz oso efektu bitxiak lortzen dira, marfil grabatuarekin efektu zoragari eta delikatuak, marfilean bertan graba daitezkeelako xehetasunak eta grabaturiko ildoak kolore beltzez bete.

TARACEA

Obra de embutido hecha con trozos menudos de madera, concha, metales u otras materias. En el dibujo de las taraceas lo que primeramente debe tenerse en cuenta es el método de reproducción. El dibujo, que se compone de un número de piezas cortadas de una madera muy fina o chapa y puestas sobre la superficie que se quiere decorar, debe caracterizarse por cierta sencillez y aún severidad.

Esta labor para taracea no es, sin embargo, tomar una forma natural y reproducirla de modo convencional, sino desarrollar las ideas sugeridas por la naturaleza y realizarlas armónicamente. El resultado final puede tener un parecido tan lejano con el natural que sólo sea reconocible por el artista.

En la taracea pueden obtenerse efectos bellísimos de colorido, porque pueden emplearse toda suerte de materiales, desde la madera, en su infinita variedad de colores, hasta el nácar, el marfil o los metales. Se obtienen raros efectos embutiendo roble claro con peltre, y se logran asimismo muy bellos y delicados con marfil grabado, porque los pormenores pueden grabarse en marfil y las líneas grabadas rellenarse de negro.

Artisaua: / Artesano:
ALEJANDRO GONZALEZ GOENAGA

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1957, Martxoak 13 - Tolosa (Gipuzkoa)

Helbidea: / Domicilio:
Solkorre Kalea, 2-3° C
ANOETA (Gipuzkoa)

Tel.: 65 39 51



Aurkezpen gisa:

Mendizaletasunarekin batera sortu zitzaion makilagintzarako zaletasuna. Etxean, beste eginkizun asko utzita, taila, jostailu txiki, etabarrekin hasi zen zura lantzen. Poliki-poliki makilak egiten espezializatu zen eta enkarguak jasotzen hasi. Gaur egun, artisau lan honetara egun osoz dedikatzea eta esku lan mota hori bere bizibide bihurtzea lirateke berari gehien gustatuko litzaizkiokenak, horrelakorik gertatzea zail ikusten badu ere; oraingoz, behintzat, Arte Grafikoetan ohiz egiten duen lana mantendu beharrean dago.

Bere lan ia gehienak enkarguz egiten ditu eta azokaz azoka saldu.

Otros datos:

Comienza su afición a la fabricación de makilas unida a su dedicación a la montaña. Comienza a quedarse en casa elaborando tallas, pequeños juguetes, etc... todo ello de madera. Poco a poco se especializa en la fabricación de makilas y comienza a recibir encargos. Hoy le gustaría poderse dedicar exclusivamente a éste tipo de trabajo artesano y poder vivir de ello, cosa que ve muy difícil, por lo que sigue manteniendo su trabajo habitual en el campo de las Artes Gráficas.

La mayoría de sus productos los elabora por encargo y los vende en las ferias.

MAKILA

Makila euskaldunen bastoi tipikoa da, batipat Zuberoa eta Behenafarroan; eguneroko erabilpenerako eta defentsarako arma, makilaren eskutokian izkutaturik daraman puntzeta erabiliz gero. Goiko partea, eskutokia, metal edo hezurrezkoa izaten da eta marrazki geometrikoz edo larruzko apainduraz makilari errefuertzoa egiten dion zatiri errematea egiten dio. Beste aldean, puntan, beste errefuertzoa bat darama metalezkoa baita ere, zenbait marrazkiz apaindurik eta makilaren puntari sendotasuna emanez; punta hau triangelu antzeko hagindun burdina bat izaten da.

Artisau honek erabiltzen dituen zurak era askotakoak izaten dira: ezpela, elorria, gorostia, otea, haritza, hurritza, gaztaina, mizpiroa, etab. Behin eta mendian begiz jo ondoren, azala kendu eta leku ilun batean uzten du lehortzen, gutxienez urte bete bat inguru, tailaketa eta lanketa hasi aurretik. Zura inoiz ere ez du drezatzten.

EL BASTON O "MAKILA"

La makila es el bastón típico de los vascos, sobre todo en Zuberoa y Behenabarra; bastón de uso normal y arma de defensa, debido al estoque escondido en el interior de la parte superior del palo y la empuñadura. Su parte superior es un pomo de metal o de hueso que remata un refuerzo metálico con dibujos geométricos o bien un adorno de cuero. En el extremo opuesto lleva también una abrazadera metálica, adornada de trazos muy sencillos que sujeta a su vez a la punta de la makila y que consiste, a modo de triángulo, en una cabeza estriada de hierro.

Aparte de esta makila clásica, ha existido siempre el palo a modo de bastón con una cabeza de animal u otro remate tallado en la parte superior. No faltaban entonces motivos para figurar tales como incisiones, triángulos, estrellas, cruces u otras figuras. A veces la parte inferior remataba en una parte más gruesa y contundente como arma, o en una puntera de acero inoxidable.

Las maderas utilizadas por este artesano son muy variadas: boj, endrino, acebo, argoma, roble, avellano, castaño, níspero, etc. Detectado y cortado en el monte, lo pela y lo deja secar en una zona oscura durante al menos un año, antes de iniciar el proceso de tallado y elaboración. Nunca endereza la madera.

Artisaua: / Artesano:
JOSE RAMON SALMANTON URIONDO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1959, Maiatzak 24 - Bilbo (Bizkaia)

Helbidea: / Domicilio:
Gaiardi Kalea, 26
ZALLA (Bizkaia)

Telf.: 667 08 26



Aurkezpen gisa:

Familiako ohiturei jarraituz, bere aita-rengandik ikasi zuen. Berak erabiltzen dituen lanerako teknikak lehengoak badira ere, ekoizpenak edo produktuak jendearen eskarietara egokituak dira. Hasiara batean, otarre handiak, aulkiak etabar egiten zituen, gaur egunean ordea otarre txikiagoak eta beste erabilpen batzutarako saskiak egiten ditu: kostura, lorontziak, etab. Era berean, gaztain zurez egindako beste gai batzuk ere sortu berri dira: persiana itxidurazko kutxatxoak, horma erlojuen oinak, etab...

Gaur egunean langintza mota hau da bere ogibide, aulkiak eta otarre handiak ere egiten jarraitu arren. Bere ekoizpenak tailerrean zein azoketan saltzen ditu.

Otros datos:

Continuando la tradición familiar aprende con su padre. Aunque las técnicas de elaboración son las mismas, ha adecuado los productos a la demanda del público. Antes fabricaba grandes cestos, sillas, etc..., hoy hace cestos más pequeños y para otros menesteres como son la costura, floreros, etc... También surgen nuevos productos elaborados con flejes de castaño como son los cofrecillos con cierre de persiana, armazones para relojes de pared, etc...

Actualmente vive de estas manufacturas, aunque continúa elaborando sillas y grandes cestos. Los productos los vende tanto en el taller como en las ferias.

GAZTAIN ZUMITZEZKO OTARGINTZA

Lanerako erabiltzen duen lehengaia, gaztain zumitza izaten da. Otarre eta aulkigintzan gaztain zumitza erabiltzea aspaldiko ohitura da.

Lehendabiziko lana bostetik zortzi urte bitarteko gaztain makilak, adarbegirik gabekoak, aukeratzea izaten da. Gero uretan uzten dira beratzen eta, ondoren, labe batean bertz edo dupin handi batean egosialdi bat emanez zumitzak ateratzen zaizkio. Zumitzak, lan mota horretarako bereziki prestaturiko aulki luze batzutan gaztain makilak ipini eta labaina berezi batzurekin ateratzen dituzte. Gero, zumitzak espartzatu egiten dira otarrearen oina eta hormak egituratzeko. Ondoren hormetako zumitzak espartzatu eta lanari errematea egiten zaio, gaztain makila txikiago batez edo handiago batez, kasu honetan makila luzetara erdibituz eta zatiak elkarrekin espartzatu.

Otarre eta antzeko lanak baserrian erabiltzen dira. Aulkiak gaur egunean bi eraketa egiten dira: baserrirakoak gaztain zumitz espartzatu eta espartzaketa sozkakoa duten aulki berriak.

Artisautza mota hau ahulduz doa eta gaur egunean gutxi dira Euskal Herrian lan honetan dihardutenak.

CESTERIA DE FLEJE DE CASTAÑO

La materia prima utilizada son los flejes de castaño. Este producto tiene un uso tradicional para la fabricación de cestos y sillas.

El proceso de elaboración se inicia con la elección de los palos de castaño de cinco a ocho años, sin nudos. Se dejan a remojo y más tarde se sacan las tiras o flejes mediante cocción en horno o caldera de agua. Los flejes se sacan con una cuchilla sobre un banco alargado preparado para llevar a cabo este tipo de trabajos. Después se trenzan los flejes originando lo que será la base del cesto y las paredes. Se trenzan las tiras de las paredes y se remata la obra con un palo de castaño más pequeño o con uno mayor dividido longitudinalmente en dos mitades que luego se trenzan entre sí.

Los productos como los cestos se utilizan en los trabajos del campo. Las sillas, hoy en día, se fabrican de dos clases; la de caserío con trenzado de castaño y las nuevas sillas en la que el trenzado es de cuerdas.

Este tipo de artesanía está en regresión y quedan pocos artesanos de esta modalidad en Euskalherria.

Artisaua: / Artesano:

JUAN CARLOS BRAVO (Taller Haizea)

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:

1962, Azaroak 29 - Trapagaran (Bizkaia)

Helbidea: / Domicilio:

San José Kalea, 10-1º Erdia

TRAPAGARAN (Bizkaia)

Tel.: 492 09 05



Aurkezpen gisa:

Sestaon egindako ikastaro batekin eman zituen lehen urratsak langintza honetan. Ikastaro hori egin ondoren, Lizarrara jo zuen hango artisau batekin langintza horretan sakontzeko. Ikasten zenbait urte eman ondoren Trapagara itzuli eta langintza hori irakasten aritu da. Ohiturazko teknikak gai berriei, eta bati-pat gauza erabilgarriei, aplikatuz dihardu. Lan mota horietan lankide ditu bere ikasleak. Salmentak Estatuko denda haundietan, azoketan edota diseinu eta haltzari dendetan egiten ditu.

Otros datos:

Comienza su aprendizaje en un cursillo que recibe en Sestao. Tras este curso, va a Estella, donde se perfecciona con un profesor. Después de unos años de aprendizaje vuelve a Trapaga y comienza a enseñar el oficio. Continúa trabajando con las técnicas tradicionales aplicadas a productos nuevos y sobre todo a los de carácter utilitario. En estos trabajos le ayudan sus alumnos. Las ventas las hacen a grandes almacenes de todo el Estado, ferias y tiendas de diseño y muebles.

ZUME OTARGINTZA ETA KAÑABERAZKO HALTZARIAK

Otarreak egiteko lehenbiziko urratsa, mihimen eta ihien zumitzak beratzen ipintzea da. Ondoren espartzatu egiten dira, aukeratutako forma eman eta behar diren koloreak nahastu. Lana amaitzeko berniz edo laka geruza bat ematen zaio.

Griegoek aintzina-aintzinatik erabiltzen zituzten zume otarrak eta gainera era guztietako erabilpenetan; dirudienez, griegoek Egiptotik edo ekialdeko beste herrialde batzuetatik hartu zuten zume-gintza; geroago erromatarrek griegoengandik ikasi zuten. Hasiara batean otarrea frutak eta lekariak erabiltzeko izaten bazen ere, erromatarrek laster eman zizkionten beraiek "cista" deitzen zioten otarrearri beste erabilpen batzuk: bolumenak edo eskuizkribuak biribilkatuz gordetzeko, gauza baliotsuak, bitxiak, aipangailuak, etab...

Zume edo mihimenarekin egindako gaiekin batera dira kanabera eta ihiarekin egindakoak ere, gaur egunean geroz eta indar gehiago hartzen ari dira denak haltzarigintzan eta edergintzan. Eremu honetan, apainduragintzan, alegia, ohiturazko otargintzan baino aukera handiagoak erakusten ari da.

CESTERIA DE MIMBRE Y MUEBLES DE CAÑA

Para la elaboración de cestos se procede, como primer paso, al remojo de las tiras o flejes de mimbre y de médula de junco. Seguidamente se trenzan, se le da la forma elegida y se mezclan los distintos colores. Se procede al acabado con una capa de barniz o laca.

Los griegos emplearon el cesto de mimbre desde tan remota antigüedad y para tantos usos que no es aventurado suponer que no les pertenece la invención, que debieron copiar de egipcios u orientales. De los griegos lo tomaron los romanos. Si en un principio el cesto se destinaba a contener o llevar frutos y legumbres, el mismo nombre de cista daban los romanos también al cesto, caja, arqueta o cofrecillo donde se guardaban los volúmenes o manuscritos arrollados, objetos preciosos, joyas, utensilios de tocador, etc...

Un complemento a esta cestería de mimbre, lo encontramos en el uso de la caña y el junco para la elaboración de productos que en la actualidad están teniendo una revitalización importante en la mueblería o los adornos. Este campo además ofrece unas posibilidades de diseño y aplicación más abiertas que la tradicional cestería.

Artisaua: / Artesano:
EPIFANIO LAZKANO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1925, Maiatzak 12 - Iturgoien (Nafarroa)

Helbidea: / Domicilio:
ITURGOIEN (Nafarroa)

Telf.: 35 70 87



Aurkezpen gisa:

Lanbidea bere aitaren eskutik ikasi zuen. Egun, lan egiteko modua mekanizatu ez bada ere, laneko erremintetan zenbait aldaketa eman dira. Goraizeak, adibidez, elektrikoak dira, lokatzekin orean egiteko tresnak erabiltzen dira, etab... Dena den guzti horrekin ekoizpena gehitu egin da, baina lana bera oraindik ere artisau lana da.

Joareak edo zintzarriak abereentzako egiten baditu ere, gaur egunean geroz eta gehiago egiten ditu apainketarako. Salmenta tailerrean bertan egiten du. Oraingo azoka hau berak parte hartzen duen lehenengo azoka da.

Otros datos:

Aprendió el oficio con su padre. Hoy en día, el modo de trabajar no se ha mecanizado pero se han producido cambios en las herramientas de trabajo. Ahora se utilizan la tijera eléctrica, amasadora de barro, etc... Con todo ello se ha aumentado la producción, pero el trabajo sigue siendo artesanal.

Los cencerros los elabora para animales aunque muchas veces, cada vez más, se utilizan como objetos de decoración. La venta la hace en el taller. Es la primera feria en la que participa.

JOAREAK

Inguruetako txatarregietan aurkitzen dituen burdin-xaflak erabiltzen ditu lehenegai bezala. Joarea egiten hasteko, lehenengo burdin-xaflak ingudean kolpatzen ditu forma egokia eman arte. Ondoren, lokatz berezi batekin kapa bat egingo zaio. Sutan jartzen da, eta burdinaren eta lokatzaren artean dagoen kobrea, brontzea edo letoia funditu egiten da eta burdinan zehar zabaldu. Gero, amaieran, zintzilikarioa jarriko zaio. Hori adarrezkoa izaten da, burdinazkoak zarata makala egiten bait du.

Leku eta tamainaren arabera, joareak beste hainbat izen ere hartzen ditu: kalaska, dunba, txakla, ezkila, "orejera", "realera", bitarte, "kanpano", "kuartizo", etab.

Aintzinako guda aipamenetan ere azaltzen da "yoarea". Ezaguna da guda horietan, burrukan hasi behar ziren gudariak "yoare hotsean" egiten zutela.

Mitologiako kondairetan ere joarea ahalmen magikoz jantzirik agertzen zaigu. Joarearen zaratotsa aproposa da inguruetako izpiritu gaiztoak uxatzeko.

Horrela, "yoarea" beharrezkoa izaten zen haratuzte egunetan. Joarea, mozorroa eta larruzko disfrazak, gizona berak imitatu nahi duen animala bihurtzeko erabiltzen dira baserri giroko ihauterietan.

Zintzarria gure dantzariak ere erabiltzen dute, kaskabel gisara.

CENCERROS

La materia prima que utiliza son chapas de hierro que consigue en las chatarrerías de la zona. El cencerro se comienza golpeando la chapa contra el yunque para darle la forma deseada. Se continúa recubriendo todo con una capa de barro especial. En el fuego el cobre, bronce o latón, situados entre el hierro y el barro funden y se extienden por toda la chapa. Cuando se enfría se quita el barro y se procede al afinado a golpe de martillo. Más tarde se colocará el badajo. Este suele ser de asta, dado que el metal produce un sonido muy malo.

Dependiendo del lugar, del tamaño o de la forma el cencerro adopta uno u otro nombre: kalaska, dunba, txakla, esquila, ovejera, realera, bitarte, campano, cuartizo, etc.

En el terreno bélico, que se remonta a la antigüedad, se cita al "yoarea". En sus narraciones podemos encontrarnos con que los diferentes contendientes se adelantaban en el campo de batalla a "cencerro tapado".

Vemos asimismo que en las leyendas mitológicas el cencerro no se halla exento de facultades mágicas. Su tañido es suficiente para ahuyentar el espíritu maligno que pudiera haber por sus alrededores.

El "yoarea" se halla presente en las carnestolendas. El cencerro, la máscara y el disfraz de pieles, que transforman al hombre en el animal que trata de imitar, se exhiben de manera particular en el carnaval del medio rural.

El "zintzarri" lo vemos también en algunos de nuestros danzantes, que lo lucen a manera de cascabel.

Artisaua: / Artesano:
JUAN GALLEGO POLO

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1929, Ekainak 24 - Villanueva de la Reina
(Jaén)

Helbidea: / Domicilio:
Kale Nagusia, 69-3º
LIZARRA (Nafarroa)

Telf.: 55 16 71



Aurkezpen gisa:

Gaztetatik sentitu zuen kaiola zaharrak konpontzeko eta zaharbertitzeko zaletasuna. Afizio horrek eta animali zaletasunak langintza mota honetan sakontzera eramán zuten. Batzuetan tradiziozko ohi-turak kopiatzen bazituen ere, beste batzuetan bere gogoak agintzen zizkion al-daketak egitera jotzen zuen. Zepoak ere egiten ditu pizti eta txoriak harrapatzeko.

Lanbidea maiz askotan aldatzeak ez dio eragozpenik jarri berak "dibertsioa" deitzen dion lan honekin jarraitu ahal izateko. Orain, jada jubilaturik, lan mota honetan jarraitzen du, Lizarran eta joaten den azo-
ketan zehar bere lana salduz.

Otros datos:

Desde muy joven comenzó a sentirse atraído por el arreglo y restauración de viejas jaulas. Su afición, unida a su amor por los animales, contribuyó al perfeccionamiento de estas labores. Copiando de las tradicionales, efectuaba transformaciones en ella de acuerdo con su gusto. También confecciona cepos para alimañas y pájaros.

Sus variados oficios no han impedido que continúe trabajando en lo que él denomina su "diversión". Ahora, ya jubilado, sigue dedicándose a ello exponiéndolo y vendiendo en Estella y en las ferias a las que acude.

KAIOLAK

Kaiolak kutxa itxiak eta forma askotakoak izaten dira, zur, alanbre, zume edo kanaberazko burdin-sarez eginak; batzuk txoriak gordetzeko, beste batzuk untxiak, animaliak edota kilkirrak. Gure artisau honek kobrezko kaiolak egiten ditu.

Txori kaiolak norbanakoak eta kolektiboak izaten dira; haietako batzuk sinpleak izaten dira, txoritxo bat doi-doi mugitu ahal izateko modukoak, leku batetik bestera eramaten ibiltzeko izaten dira, zur merke eta alanbre arruntez eginak, forma prismatikoa ematen zaie; beste batzuk ordea luxu guztiekin egindakoak izaten dira: alanbre urreztatuz eta lore apaindurazko kristalezkoak. Kaiola kolektiboei txoritegiak deitzen zaizkie, leku asko izaten dute eta lorategietako leku nagusiene-tan egoten dira.

Kanarioak hazteko, kaiola bereziak ere egiten dira, eta kaiola horiek handiak direnean kanariotegiak deitzen zaizkie. Hegaztientzat orohar era askotako kaiolak egiten dira, adibidez: oilokaiolak, oiloak godetzeko kaiolak direnean; faisai kaiolak, faisaiak gordetzeko badira eta usategiak, usoak gordetzeko. Lehenengo aipatuak izan direnentzat era guztietakoak egiten dira, hasi apalenetik, hau da, kutxa txiki eta itxi bat, eta benetako etxebizitzak direneraino, hots, hegazkin industriak gaur egunean eskatzen duen arabera-koak.

JAULAS

Las jaulas son cajas cerradas completamente y de formas diversas, construidas de enrejados de madera, alambre, mimbrés o cañas, para contener aves y conejos unas, animales otras, y hasta para tener grillos. Este artesano las realiza en cobre.

Para tener pájaros se construyen individuales y colectivas, desde las más sencillas, en donde puede moverse un sencillo pajarito y que las emplean para transportarlas de un lugar a otro, que se construyen de madera sencilla y alambre ordinario y de forma prismática, hasta las más lujosas construidas con alambre dorado y cristales pintados con motivos florales. Las jaulas colectivas se llaman pajareras, son espaciosas y ocupan lugares preferentes en los jardines.

También se construyen especiales para la cría de canarios que, cuando son grandes se llaman canarieras. Para las aves en general se construyen jaulas denominadas gallineros, cuando han de contener gallinas; faisaneras, si han de contener faisanes, y palomares, si palomas; las primeras se construyen desde las más sencillas, constituyendo un pequeño recinto cerrado, hasta la que reúnen condiciones de verdaderas viviendas, lo que sucede generalmente con las recomendadas por la avicultura industrial.

Artisaua: / Artesano:
FAUSTINO PUENTE DÍAZ

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1932, Urriak 9 - Balmaseda (Bizkaia)

Helbidea: / Domicilio:
Enkartaciones Hiribidea 37-2ºA
BALMASEDA (Bizkaia)

Tel.: 680 08 15



Aurkezpen gisa:

Hamairu urte zituela hasi zen lanean aitaren tailerrean. Enpresa tradizio familiarrekoa da, bertan ikasi zituelarik lanbidearen xehetasun guztiak. Gaur egunean laborazioa tradizionala da, sutegiaren ordeztu sopletea erabiltzen bada ere, zaila bait da eraikin moderno batean lan mota honetarako behar diren sutegiak erabiltzea.

Tradizioa galduz doa poliki-poliki, eta kontuan izanik merkatuan erreminta bereziak (mailuak, etab...) aurkitzea ere geroz eta zailagoa dela, erraz uler daiteke hain jende gutxi dedidakatzea artisautza honetara.

Otros datos:

Comenzó a los trece años en el taller de su padre. La empresa es de tradición familiar y en ella aprende todos los pormenores del oficio. La forma de elaboración, actualmente, es la tradicional, aunque se ha suplido la fragua por el soplete, ante la imposibilidad de usar la fragua en un edificio moderno.

La tradición poco a poco se va perdiendo, y esto añadido a la difícil adquisición en el mercado de herramientas como martillos de peña, etc..., hace que queden pocas personas dedicadas a este tipo de artesanía.

En la actualidad vive de este trabajo y lo alterna con el de guarda forestal. Los productos elaborados (herradas, calderos, chocolateras, etc.) los vende en el propio taller y en las ferias.

KOBREZKO GALDARAGINTZA

Berzkile edo galdarari gremioaren lehen erakundea XIV. mendekoa da. Kobrezko lanek burdinazko lanek baino garapen handiago lortu zuten, lurruna industriari aplikatzen hasi aurretik.

Kobrea ez da burdina bezain gogorra eta hori baino askoz ere errezago landu daiteke. Berzkileak bere lanerako materiala beti xaflatan jasotzen du, gero egoki moztu eta zatiak elkartu, nahi duen objektuak lortzeko. Materiala hotzean ala beroan lantzea, lortu nahi den gaiari eman nahi zaion destinoak agintzen du. Xaflaren zatiketarako trazatua ahal denik eta zehatzena izaten da, material gehiegirik ez xahutzeko.

Lanari azken amaiera emateko, mailu berezi batzuk erabiltzen; golpeak ematen dituen aurpegia hain egoten da ondo puliturik izpilua ematen duela. Artisauak bere ondoan eduki behar izaten du tauleta bat potea gorritz beteta mailuaren pulimentua bere onean mantentzeko. Piezak lantzean mailukadak eusteko erabiltzen diren astoak kurbatura bat izan behar dute, eta kurbatura hori lortu nahi den objektuaren ahal denik eta antzekoena izan behar da.

Gainazala pulitzeko eta mailukada konkak kentzeko, burua pixkat esferikoa izaten duen zurezko mailu berezi bat erabiltzen da.

CALDERERIA EN COBRE

Del siglo XIV es la primera organización del gremio de caldereros. El trabajo del cobre adquirió mayor desarrollo que el del hierro antes de la aplicación del vapor de la industria.

El cobre es menos rígido que el hierro y se deja tratar más fácilmente que éste. El calderero recibe siempre el metal en planchas, que debe cortar convenientemente para ensamblar luego los trozos y constituir el cuerpo que desea. Se trabaja en frío y en caliente, según su destino final. El trazado del desarrollo en la plancha debe ser lo más exacto posible, para economizar metal.

Las operaciones se terminan por el golpeado de martillos, en que la cara que golpea se halla tan pulimentada que es brillante como un vidrio. El artesano debe tener cerca de sí una tablilla con potea roja para mantener el pulimento de la cara de su martillo. Los caballetes que sirven de apoyo a las piezas al ser martilleadas deben tener la curvatura lo más semejante posible a la del objeto.

Para pulir la superficie y quitarle los efectos del martilleo, se emplea un martillo de madera de cabeza ligeramente esférica. Estos procedimientos, hoy en día, han sido sustituidos por máquinas alisadoras.

Artisaua: / Artesano:
JESUS LOPEZ ABAIGAR

Jaioteguna: / Fecha de nacimiento:
1954, Urtarrilak 8 - Eibar (Gipuzkoa)

Helbidea: / Domicilio:
Aita Galdos Kalea, 21 - 2º Ezk.
EIBAR (Gipuzkoa)

Telf.: 11 05 49



Aurkezpen gisa:

Eibarren hasi zen ikasten, 1961ean, Dibujoko Eskola Sindikalean. Lehen grabaketak txapa, letrero, etabarretan hasi ondoren, geroago, jada esperientziaren jabe, eskopeten apainketarako marrazkiak egiten hasi zen. Grabatzaile bakoitzak eskopetan egin behar duen lana beste grabatzaileengandik erabat independentea izaten da.

Bere lanak eskopeta fabriketara saltzen ditu. Normalean, eskatzen diotenaren arabera saltzen ditu lanak; zentzu honetan, aipagarria da Espainiako Erret Etxeak egindako eskaria.

Otros datos:

Comienza su aprendizaje en la Escuela Sindical de dibujo de Eibar en 1961. Ejecuta las primeras grabaciones sobre chapas, letreros, etc... para poder pasar, más tarde y con experiencia, a efectuar los dibujos sobre las escopetas. Cada grabador tiene su propio trabajo en la escopeta, independientemente del trabajo de sus compañeros.

Sus productos los vende en las fábricas de escopetas. Normalmente vende sobre pedido, destacando los efectuados para la Casa Real Española.

METAL GRABAKETA

Historiaurrean aintzinako gizonak harri zorrotzeko edo metalezko tresnaz egiten zituen grabatuak harkaitz gainetan. Bada Euskal Herriko kobazuloetan zehar marrazki horien makina bat eredu zoragarri, bakar batzuk baino ez aipatzeagatik horra izen batzu: Isturitz, Ekain, Urtiaga, Santimamiñe, Zubialde, Altxerri, etab... Historian zehar gizonak bere arma eta defentsa tresnetan zenbait zeinu eta letra grabatu izan ditu modelo, fabrikazio eguna, non laboratua izan den, etabar adierazteko. Euskal Herrian eskopetak, orfebreni piezak eta bitxiak teknika mota ugari erabiliz grabatu izan dira; horra teknika batzuk: burilatua, mailukatua, eskuz edo kolpez burilatua, ataujia, nielatua, ur garratzeakoa, mailukatu eta zizelatua. Guzti horien artean aipagarria da Eibarko Eusebio Zuloagak 1840an sortutako damaskintza. Teknika hau, gehienbat, Arrasatek Durangora arte dagoen zona zabal guztian zehar egiten ziren arma zuri eta suarmak apaintzeko asmatu zen, eta ez orain okerretara esaten den bezala Tolodon.

GRABADO DE METALES

